



1.- Kulturako teknikariak erregelamendu bat idatzi behar du, eta horren helburua da Leidor zineman ez dadila kontsumitu ez janaririk, ezta edaririk ere. Erregelamendua prestatu aurretik:

- a) Udalaren web-atariaren bitartez jendaurreko kontsulta bat egin behar da, nahitaez, interesdunen iritziaren berri jasotzeko.
- b) Zirriborria web-orrian jarriko beharko da, nahitaez, interesdunek hari buruzko alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten.
- c) Aukera egongo da hasierako onespeneraren aurreko kontsultarik ez egiteko.
- d) Ordezkaritza handiena duten erakundeei kontsulta egingo zaie, nahitaez, eta ordenantzaren zirriborria idatziko da.

2.- Noiz jartzen da indarrean ordenantza bat oro har?

- a) Testu osoa Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean.
- b) Hamar eguneko epea igarotzen denean testu osoa Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- c) Hamar eguneko epea igarotzen denean testu osoa Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.
- d) Haren testu osoa Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, eta Estatuko edo eskumena duen autonomia-erkidegoko administrazioak hura jasotzen duenetik hamabost egun baliodun igaro ondoren.

3.- Legez 17 zinegotzirekin eratutako udal batek erregelamendu organikoa aldatu nahi du. Osoko bilkurara 15 zinegotzi joan dira. Zenbat boto behar dira erregelamendua aldatzeko?

- a) 8 boto.
- b) 9 boto.
- c) 15 boto.
- d) 17 boto; horrenbestez, ezin izango da bilkura horretan onetsi, eta legez eratutako kide guztiek parte hartzen duten bilkuran onetsi beharko dute.

4.- Alkateak bandoa egin du, udal-eskumeneko gai bat arautzeko, eta bertan betebeharrak, arau-haustek eta hura ez betetzeagatiko zehapenak ezarri ditu. Markatu erantzun zuzena:

- a) Xedapen orokorra da, eta ondorioz, alkatearen jarduna zuzena da.
- b) Bandoen arau-hausterik ezin da egon, ez baitute izaera arauemailerik.
- c) Bandoak zuzenbidea sortzen du, eta ordenamendu juridikora gehitzen da; izan ere, askotariko pertsonentzat zuzenduta dago eta eremu espezifiko bat arautzen du.
- d) Ordenantza batek adinako indarra du. Alde bakarra zera da: herriko ohiturei eta usadioei jarraikiz argitaratzea.



TOLOSAKO
UDALA

5.- Toki-erakundeek objektibotasunez zerbitzatzen dituzte agindu zaizkien interes publikoak, eta printzipio hauen arabera jarduten dute:

- a) Eraginkortasuna, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa.
- b) Eraginkortasuna, efizientzia, deskontzentrazioa eta koordinazioa.
- c) Eraginkortasuna, deszentralizazioa, autonomia eta koordinazioa.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

6.- Hauetatik zein ez dago herritarren eskubideen artean?

- a) Hautesle eta hautagai izatea, hauteskunde-legediaren arabera.
- b) Herri-galdeketa egiteko eskatzea, Legean zehaztutakoari jarraituz.
- c) Zerbitzu publiko bat udalaren nahitaezko eskumenekoa ez denean, zerbitzu hori emateko eta ezartzeko eskatzea.
- d) Arrazoitutako eskaria aurrez eginik, informazioa jasotzea, eta udal-espeditente eta -agiri guztien gainean udal-administrazioari eskaerak egitea.

7.- Adierazi, eskumen hauetatik, Alkatetzari zein dagokion:

- a) Udal-zerbitzuak eta -obra zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- b) Osoko bilkurari berriaz egotzi gabeko plangintza orokorraren garapeneko plangintza-tresnak onartzea, hala nola hirigintza-kudeaketako tresnak eta urbanizazio-proiektuak.
- c) Udal-ondasunak besterentzea, baldin eta ez badute aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino gehiago balio, ezta 3 milioi euro baino gehiago ere.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

8.- Aukeratu erantzun okerra: 5.000 biztanle baino gehiago eta 20.000 baino gutxiago dituzten udalerriek honako zerbitzu hauek eman beharko dituzte, nolana ere:

- a) Erabilera publikoko kirol-instalazioak.
- b) Parke publikoa.
- c) Liburutegi publikoa.
- d) Biztanleguneetarako sarbidea eta bide publikoen zoladura.

9.- Zer organori dagokio Topic eraikinaren jabari publikoko emakida esleitzea, baldin eta haren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada aurrekontuko baliabide arrunten % 5etik gorakoa, ezta milioi euro batetik gorakoa ere?

- a) Osoko bilkurari.
- b) Gobernu Batzarrari.
- c) Zinegotzigo Eskuordetuari.
- d) Alkatetzari.



TOLOSAKO
UDALA

10.- Osoko Bilkuraren eskumen hauetatik, zein eskuordetu dakioke tokiko gobernu-batzarrari?

- a) Zerbitzu-proiektu bat onartzea, hura kontratatzea osoko bilkuraren eskumena denean eta aurrekontuan oraindik aurreikusita ez daudenean.
- b) Beste administrazio publiko batzuek eskuordetzan emandako eskumenak ontzat hartzea.
- c) Lanpostu-zerrenda onartzea.
- d) Udalaz gaindiko organoetan parte hartzea.

11.- Zinegotzigo eskuordetuak dirulaguntzen deialdi bat ebatzi zuen, Alkatezak eskuordetutako eskumenetan oinarrituta. Eskuordetze horrek ez zuen aipatzen administrazio-errekurtsoak ebaztea.

Irabazi-asmorik gabeko elkarte batek berraztertzeko errekurtsua aurkeztu du, epearen barruan, deialdi-ebazpenaren aurka. Nork ebatzi behar du errekurtsu horretaz?

- a) Alkatezak.
- b) Zinegotzigo Eskuordetuak.
- c) Gobernu Batzarrak.
- d) Dirulaguntzen ebazpena ematen duen mahai paritarioak.

12.- Toki-erakundeen egintzei eta erabakiei aurka egin ahal izango diete, erakundeok ordenamendu juridikoa hausten dutenean:

- a) Estatuko administrazioak eta autonomia-erkidegoetakoak.
- b) Egintza eta erabaki horien aurka botoa eman duten korporazioetako kideek.
- c) Egintza eta erabaki horien onespenean abstenitu diren korporazioetako kideek.
- d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.

13.- Indarreko legeriaren arabera, Udalek:

- a) Bost urte dituzte ondare-ondasunen edukitza beren kabuz berreskuratzeko, usurpazioa gertatzen denetik aurrera.
- b) Urtebete dute ondare-ondasunen edukitza beren kabuz berreskuratzeko, usurpazioa gertatu eta hurrengo egunetik aurrera.
- c) Hogei urte dituzte ondare-ondasunen edukitza beren kabuz berreskuratzeko, usurpazioa gertatzen denetik aurrera.
- d) Hiru urte dituzte ondare-ondasunen edukitza bere kabuz berreskuratzeko, usurpazioa gertatzen denetik aurrera.

14.- Jabari publikoko ondasun baten gaineko erabilera pribatiboa:

- a) Emakidaren mende dago beti.
- b) Legitimatuta daiteke jabari publikoko baimenaren bitartez, epea lau urtetik beherakoa bada.
- c) Ondare-baimenaren mende dago.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.



TOLOSAKO
UDALA

15.-Udalak lantegi okupazionalen zerbitzua arautzen duen erregelamendua onartzea erabaki du. Zer errekurtsio aurkez diezaiokegu?

- a) Berraztertze errekurtsioa.
- b) Errekurtsio arrunta.
- c) Gora jotzeko errekurtsioa.
- d) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa.

16.- X.L. enpresa baten ordezkaria da, eta enpresa hori lizitatzen ari da Kultura sailaren obra-kontratu baterako. Lizitazio horretako administrazio-baldintzen agiriak kaudimen teknika frogatzeko eskatzen du, eta hartarako, azken bost urteotan egindako obren zerrenda aurkeztu behar dute. Zer jaso behar du obra-zerrenda horrek? Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Obra-zerrenda horretan erantzukizunpeko adierazpena egongo da, eta haren bidez zenbatekoa eta datak zehaztuko dira, baita hartzailea publikoa edo pribatua izan zen ere.
- b) Gauzatze onaren ziurtagiriak, obren zenbatekoa, datak eta tokia zehaztuta.
- c) Gauzatze onaren ziurtagiriak, obren zenbatekoa, haiek egiteko datak eta tokia zehaztuta. Zehaztuko da, gainera, lanbidea zuzentzen duten arauei jarraikiz egin zirela eta behar bezala gauzatu zirela, hala izanez gero.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

17.- XXX SA enpresak eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu du hornidura-kontratu baten lizitazioan; hortaz, Udalak berme ekonomikoa eratzeko eskatu dio. Zer zenbateko eska diezaioke berme horretarako? Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Eskainitako azken prezioaren 100eko 5, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo.
- b) Esleitzeko zenbatekoaren 100eko 10, balio erantsiaren gaineko zerga barne.
- c) Esleitzeko zenbatekoaren 100eko 20, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo.
- d) Hornidura-kontratu baten esleipenean ezin da berme ekonomikorik eskatu.

18.- Zer oinarrizko elementuk osatzen dute udalerrria?

- a) Osoko bilkurak, alkateak eta udal-errolak.
- b) Udal-mugarteak (lurraldea), biztanleriak eta antolaketak.
- b) Udal-mugarteak (lurraldea), biztanleriak eta alkateak.
- d) Osoko bilkurak, biztanleriak eta alkateak.

19.- Udalaren osoko bilkurak eremu publikoa erabiltzeari buruzko udal-ordenantzaren hasierako onespina egin du, ukitutako gizarte-eragileekin herritarren parte-hartze prozesua egin ondoren. Zein da egin behar duen hurrengo urratsa ordenantza hori izapidetzeko?

- a) Jendaurrean jartzea, gutxienez hilabete.
- b) Jendaurrean jartzea, gutxienez hogeita hamar egun.
- c) Kasu honetan ez da beharrezkoa jendaurrean jartzea, herritarren parte-hartze prozesu bat egon baita.
- d) Udalak ordenantza erakustea edo behin betiko onartzea aukeratu dezake.



TOLOSAKO
UDALA

20.- Udalaren osoko bilkura balio osoz eratuta egon dadin:

- a) Presidentea eta idazkaria baino ez dira egon behar.
- b) Presidentea, idazkaria eta hiru zinegotzi egon behar dira.
- c) Gutxienez lau zinegotzi egon behar dira, eta, gainera, presidentea eta udal-idazkaria.
- d) Korporazioko kideen legezko kopuruaren heren bat, presidentea eta idazkaria behar dira.

21.- Ondasunei buruzko erregelamenduaren 4. artikulua araberako udal-udal honela definitzen da:

- a) Erabilera publikoko ondasuna.
- b) Zerbitzu publikoko ondasuna.
- c) Herri-ondasuna.
- d) Ondare-ondasuna.

22.- Kontratazio-prozedura bateko behin-behineko bermea:

- a) Espedientean justifikatu behar da hura eskatzea.
- b) Nahitaez eskatu behar dago administrazio-kontratu guztietan.
- c) Ez da inola ere nahitaez eskatu behar.
- d) Kontratazioaren zenbatekoa aurrekontuko baliabide arruntaren % 3tik gorakoa denean baino ez da eskatu behar.

23.- Adierazi honako baieztapen hauetatik okerra zein den, administrazioaren jabari publikoko ondasunak honelakoak dira:

- a) Besterenezinak.
- b) Immatrikulatzeko modukoak.
- c) Enbargaezinak.
- d) Preskribaezinak.

24.- Udal guztietan honako hauek daude:

- a) Alkatea eta tokiko gobernu-batzarra.
- b) Alkatea eta kontuen batzorde berezia.
- c) Alkatea eta iradokizun eta erreklamazioen batzorde berezia.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

25.- Korporazioko presidentek osoko bilkuraren bilkura berezia deitu behar du nahitaez:

- a) Korporazioko legezko hiru kidek eskatzen badute.
- b) Korporazioko legezko kideen laurden batek eskatzen badu.
- c) Korporazioko legezko kideen bosten batek gutxienez eskatzen badu.
- d) Korporazioko legezko bost kidek eskatzen badute.



TOLOSAKO
UDALA

26.- Udalak eliza katolikoaren lokal bat eskuratu nahi du, zein da horretarako legezko prozedura?

- a) Zuzeneko adjudikazioa egin daiteke, eskuratzailerak erlijio-komunitatea delako.
- b) Administrazio publiko bat bada baino ezin da zuzenean egin.
- c) Baldin eta higiezina zerbitzu publikoko funtzio bat betetzeko beharrezkoa bada baino ezin da zuzenean egin.
- d) Lehiaketa da legitimatutako prozedura bakarra.

27.- Udala ondare-ondasun higiezin baten jabea da. Besterendu nahi du partikular baten ondasun batekin trukatu.

- a) Partikularren ondasunak diru truk baino ezin dira eskuratu.
- b) Biek balio bera badute, egin daiteke.
- c) Egin daiteke, baldin eta trukatu beharreko ondasunen arteko balio-aldea ez bada balio handiena duenaren % 40tik gorakoa.
- d) Egin daiteke, baldin eta trukatu beharreko ondasunen arteko balio-aldea ez bada balio handiena duenaren % 50etik gorakoa.

28.- Espainiako Konstituzioaren 1.1 artikulua haxe xedatzen du: «Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala...»

- a) askatasuna, justizia, berdintasuna eta senidetasuna aldarrikatzen ditu.
- b) askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu.
- c) botere-banaketa (betearazlea, legegilea eta judiziala) eta herri-subiranotasuna aldarrikatzen ditu.
- d) aniztasun politikoa eta herri-subiranotasuna aldarrikatzen ditu.

29.- Espainiako Konstituzioaren 14.etik 29.era arteko artikuluetan eta 30.2 artikuluan aitortutako eskubideen eta askatasunen urraketen aurrean, azken errekurso gisa, herritarrek aukera izango dute...

- a) babes-errekursoa jartzeko Konstituzio Auzitegian.
- b) babes-errekursoa jartzeko Arartekoan.
- c) administrazioarekiko auzi-errekursoa jartzeko Konstituzio Auzitegian.
- d) administrazioarekiko auzi-errekursoa jartzeko Arartekoan.

30.- Lurralde-antolaketa. Zer udal-organori dagozkie legeek udalerrinari, organo espezifiko bati esleitu gabe, berariaz egotzitako funtzioak?

- a) Osoko bilkurari.
- b) Alkatetzari.
- c) Tokiko gobernu-batzarrari.
- d) Alkateordeei.



TOLOSAKO
UDALA

31.- Euskal Autonomia Estatuaren 2. artikulua dioenez, zeinek du Euskal Autonomia Erkidegoaren partaide izateko eskubidea?

- a) Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak.
- b) Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak, Nafarroak bezala.
- c) Hala nahi duten probintziek.
- d) Hala nahi duten probintzia mugakideek.

32.- EAEko Autonomia Estatuaren arabera, EAEren eskumen eskusiboa da:

- a) Justizia Administrazioa.
- b) Aduanaren eta muga-zergen araubidea; kanpo-merkataritza.
- c) Defentsa eta indar armatuak.
- d) Gizarte-laguntza.

33.- Berdintasuna. Printzipio orokorrak. Zer da ekintza positiboaren printzipioa?

- a) Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.
- b) Gizon eta emakumeek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzea.
- c) Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte, espezifikoak eta aldi baterako, bizitzaren eremu guztietan sexuan oinarritutako egitatezko desberdinkeriak ezabatzeko edo murrizteko.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

34.- Zehaztu zer printzipiori dagokion honako definizio hau: «Sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian diferentek, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, exekutatze eta ebaluatze fase guztietan».

- a) Aukera-berdintasunari.
- b) Genero-ikuspegiaren integrazioari.
- c) Tratu-berdintasunari.
- d) Definizioa ez dagokio aurreko printzipio bakar bati.



TOLOSAKO
UDALA

35.- Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen arabera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, izan behar al da izapidetze elektronikoa administrazio publikoen ohiko jarduketa modua?

- a) Administrazioen eta haien erakunde autonomoen arteko harremanetarako bakarrik.
- b) Ez, Izapideak egiteko ohiko jarduketa modua aurrez aurrekoa izan behar da, bereziki herritarrekiko harremanetarako.
- c) Bai, hala herritarrekiko harremanetarako, nola administrazioen arteko harremanetarako.
- d) Bai, enpresa zein profesionalekiko harremanetarako eta administrazioen arteko harremanetarako bakarrik.

36.- Administrazioak emandako dokumentu guztiek behar dute sinadura elektronikoa?

- a) Ez.
- b) Bai, salbuespenik gabe.
- c) Bai, bestela ez baitira Administrazioak emandako dokumentu baliodunak; alegia, inolako froga-baliorik ez duten datu-euskarriak baino ez dira.
- d) Bai, baina Administrazioak atzeraeraginez sina ditzake dokumentuak geroago, mugarik gabe; beraz, dokumentuak sinadura elektronikorik gabe eman ditzake, inolako ondoriorik gabe.

37.- Organoen artean eskumenak eskuordetzan emateari dagokionez:

- a) Edozein unetan ezeztatu daitezke.
- b) Ez dago zertan argitaratu egunkari ofizial batean.
- c) Teknika horren bidez eskumenen titulartasuna transmititzen zaie goragoko edo beheagoko beste organo batzuei.
- d) Ez du mugarik eskuordetu daitezkeen gaiei dagokienez.

38.- Kudeaketa-mandatuari dagokionez:

- a) Kontratu arautuak izan ditzake xede.
- b) Eskumen baten alderdi materialak beste organo bati enkargatzea dakar.
- c) Goragoko organo batek beheagoko organo baten eskumena hartzea dakar.
- d) Bi administrazio-organok zerbitzu bat elkarrekin kudeatzea dakar.

39.- Zer eginkizun ditu kide anitzeko organo baten idazkariak?

- a) Bilkuren aktak egitea.
- b) Eskumenen eskuordetzeak onartzea.
- c) Bere eskumenen barruan dauden eskumen-bereganatzeak onartzea.
- d) Administrazio-organoren sinadura delegatzea.



TOLOSAKO
UDALA

40.- Hauetatik, zein da administrazio-organo bat abstenitzeko arrazoia?

- a) Azken 10 urteetan interesdunen batekin zerbitzu-harremana izatea.
- b) Interesdunen baten udalerrri berean errolatuta egotea.
- c) Espainiako nazionalitatea ez izatea.
- d) Espedientean interesa duen sozietate baten administratzailea izatea.

41.- Berariazko xedapenik ezean, txostenak:

- a) Beti dira lotesleak.
- b) Aukerakoak eta lotesleak dira.
- c) Aukerakoak eta ez-lotesleak dira.
- d) Nahitaezkoak eta lotesleak.

42.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, zehapenak ezarri ahalko dira:

- a) Administrazioko arau-hausteen ondorioz bakarrik; zehapen horiek lege bidez zehaztuko dira.
- b) Administrazioko arau-hausteen ondorioz; zehapen horiek lege bidez eta erregelamenduetan zehaztuko dira.
- c) Legearen maila bereko edo beheragoko arau guztietan ezarritako administrazio arau-hausteak egiteagatik.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

43.- Adierazi zein den erantzun zuzena, administrazio publikoen erantzukizunari dagokionez:

- a) Partikularren eskubidea izango da administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzea euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.
- b) Alegatutako kalteak, betiere, benetakoa izan beharko du, ekonomikoki neurgarria eta indibidualizatua, pertsona bat edo pertsona-talde bat dela eta.
- c) Partikularren eskubidea izango da administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzea, baita ezinbesteko kasuetan edo Legearekin bat etorritz partikularrak jasateko betebeharrak juridikoa duen kalteei dagokienez ere.
- d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.



44.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera, erantzukizuna eskatzeko eta, hala badagokio, kuantifikatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- a) Eragindako kaltea, administrazio publikoetako langileen erantzukizun profesionala eta langile horiek nolako lotura duten emaitza kaltegarri hori eragitearekin, eta fede gaiztoa.
- b) Eragindako kaltea, erruduntasun-maila, fede gaiztoa eta kasuaren egoera zehatza.
- c) Eragindako kaltea, erruduntasun-maila, administrazio publikoetako langileen erantzukizun profesionala eta langile horiek nolako lotura duten emaitza kaltegarri hori eragitearekin.
- d) Legeak ez du irizpiderik adierazten administrazio publikoen ondarezko erantzukizunik eskatzeko.

45.- Adierazi, hitzarmenei buruz, erantzun zuzena zein den:

- a) Indarraldia lau urtekoa izango da gehienez, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.
- b) Aurreko apartatuan aipatutako epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea.
- c) Hitzarmenek iraunaldi zehaztugabea dute.
- d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.

46.- Honela sailkatzen dira enplegatu publikoak:

- a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta lan-kontratudun langileak (finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak).
- b) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratudun langileak (finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak) eta behin-behineko langileak.
- c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratudun langileak (finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak) eta zuzendaritzako langileak.
- d) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratudun langileak (finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak), behin-behineko langileak eta zuzendaritzako langileak.

47.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren arabera, administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeko planak onartu ahal izango dituzte honako neurri hauetakoren bat barne hartuta:

- b) Lana antolatzeko erabiliko diren sistemei buruzko aurreikuspenak, eta lanpostuen egituretan egingo diren aldaketak.
- b) Giza baliabide gehiago sartzeko neurriak, enplegu publikoaren eskaintzaren bitartez.
- c) Barne-sustapeneko eta langile-prestakuntzako neurriak, eta nahitaezko mugigarritasunekoak ere bai.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



48.- Honako hauek dira karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoiak:

- a) Uko egitea, nazionalitatea galtzea, zerbitzutik kentzeko zehapena, irmoa ez bada.
- b) Uko egitea, erretiro partziala eta nazionalitatea galtzea.
- c) Uko egitea, erabateko erretiroa, nazionalitatea galtzea eta kargu publikoan aritzeko desgaiakuntza absolutuko edo bereziko zigorra, irmoa ez bada.
- d) Uko egitea, erabateko erretiroa, nazionalitatea galtzea eta kargu publikoan aritzeko desgaiakuntza absolutuko edo bereziko zigorra irmoa izatea.

49.- Adierazi, honako hauetatik, zein ez den enplegatu publikoei aplikatu beharreko administrazio-egoera bat:

- a) Norberaren interesarengatik borondatezko eszedentzia.
- b) Familiartekoren bat zaintzeko eszedentzia.
- c) Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten ikasketak egiteko eszedentzia.
- d) Destinoaren zain egotea.

50.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera, dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauei jarraikiz egingo da:

- a) Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta bazterkeriarik eza.
- b) Administrazio laguntza-emaileak finkatutako helburuak efikaziaz betetzea.
- c) Baliabide publikoen esleipen eta erabilera efizientea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

ERRESERBA:

51.- Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko, urtean negozio-bolumen jakin bat eskatzen bada, zein izango da eskatzen den urteko gutxienekoa?

- a) Kontratu guztietarako, kontratazio-organoak zehaztuko du zenbatekoa.
- b) Ez da izango kontratuaren balio zenbatetsia baino bi aldiz handiagoa.
- c) Ez da izango kontratuaren balio zenbatetsia baino bat eta erdi aldiz handiagoa.
- d) Ez da izango lizitazio-prezioa baino bat eta erdi aldiz handiagoa.

52.- Toki-erakunde baten kontratazio-mahaiari dagokionez, Udal bateko kide hautetsiak (adierazi erantzun zuzena):

- a) Ez dira izango haren kide guztien heren bat baino gehiago.
- b) Ezin izango dira inola ere izan kontratazio-mahaiko kide.
- c) Mahaiko presidente gisa baino ez dira izango mahaiko kide.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.



TOLOSAKO
UDALA

53.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikuluekin bat etorriz (Lege horren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2024/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), hornidura-kontratuei dagokienez, kontratu txikitat hartzen dira zenbateko honetatik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak:

- a) 15.000 euro.
- b) 20.000 euro.
- c) 40.000 euro.
- a) 60.000 euro.

54.- Espainiako Konstituzioak ezartzen du subiranotasun nazionala honako honetan datzala:

- a) Gorte Nagusietan.
- b) Herrian.
- c) Koroan.
- d) Autonomia-erkidegoetan.

55.- Emakunderi buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) Sailek berdintasunaren arloan egindako planak garatzeko funtzioa du.
- b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onetsi aurretik sortu zen.
- c) Erakunde hau zuzenean dago Eusko Legebiltzarraren mende, eta Legebiltzarrak izendatzen ditu haren arduradun nagusiak.
- d) 4/2005 Legearen garapena bukatuta, hura desagertzea aurreikusten da.